

# IZASKUN ARRUE KULTURGUNEKO ARAUTEGIA

Hemen jasotzen diren arauak Izaskun Arrue Kulturgunearen barneko espazio guztietan izango du eragina. Hala ere, eraikineko espazio ezberdinek beren arau espezifikoak izan ditzakete baita.

## ARAU OROKORRAK

Izaskun Arrue Kulturguneak erabilera anitzetara bideratutako eraikina izango da, beraz, espazioak eta bertan dauden pertsona guztiak errespetatzea funtsezkoa izango da bizikidetzara-arauak eta funtzionamendu egokia ziurtatzeko. Guztion eskura dago kulturgunea zaintzea eta hori bermatzeko arautegia jarraitzea ezinbestekoa da.

### Animaliak

Txakur gidariekin bakarrik sar daiteke.

### Edari alkoholdunak

Ezin da edari alkoholdunik sartu kulturgunera. Ostalaritza-eremuan soilik kontsumitu daiteke eta Antzokian, eraikinaren langile eta arduradunek espresuki baimentzen dutenean.

### Bizikletak

Ezin dira kulturgunean sartu, kanpoaldean utzi behar dira.

### Haur-kotxeak

Eraikinaren langile eta arduradunek adieraziko dituzte haur-kotxeak uzteko leku aproposenak zirkulazioa ez oztopatzeko.

### Erretzea

Kulturgunea kerik gabeko gunea da. Erretzea guztiz debekatuta dago.

### Musika-tresnak eta bozgorailuak

Eraikinaren aparatu elektroniko guztiak horretarako baimena duen langile edo arduradunak soilik erabiliko ditu.

### Jostailuak

Ezin dira erabili jostailu telegidatuak, zibak, puxtarriak, pilotak, patinak edo beste edozein objektu gurpildun. Ezin da korrika egin.

**Etzatea**

Ezin da lurrean etzan edo lo egin.

**Wifi**

Izaskun Arrue Kulturgunek wifi zerbitzu publikoa eskaintzen du.

**Altzariak eta eraikina**

Eraikinaren material guztia zaindu eta erabilera egokia eman behar zaio. Ezin dira kartelak itsatsi.

**Telefono mugikorra**

Telefono mugikorraren soinuak ezingo du jarduera edo ekitaldiak oztopatu. Horrela egingo balu, itzali edo soinua egokitu beharko da.

**Igarobide-guneak**

Ezin da horietarako sarbidea oztopatu. Larrialdi kasuetarako segurtasuna bermatuko da, igarobide-gune guztiak libre egon behar dira.

**Komunak**

Garbitasuna zaindu behar da komunetan.

**Izaskun Arrue Kulturguneko arauak hausten badira edota espazioak, pertsonak eta materialak errespetatzen ez badira, eraikinetik kanporatzeko arrazoia egongo da.**